



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

DEIALDIA

9:00etan, Eusko Legebiltzarreko Tomás Moro aretoan.

Arantza Quirogak hasiera emango dio bihar Eusko Legebiltzarrean Eurobaskek antolatutako jardunaldiari: "Lisboako Ituna, Euskaditik ikusita"

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak eta Eusko Legebiltzarrak antolatutako topaketa honetan hainbat adituk parte hartuko dute; Eusko Ikaskuntzako presidentea eta Eusko Jaurlaritzaren Europar Batasunerako zuzendaria izango dira moderatzaileak.

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentek egingo du bihar jardunaldiari hasiera emateko hitzaldia. Jardunaldi hau Eurobask-Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluarekin batera antolatu da eta titulu hau jarri zaio: "Lisboako Ituna, Euskaditik ikusita".

Hasiera-ekitaldia 9:00etan izango da, Eusko Legebiltzarreko Tomás Moro aretoan. Ondoren, egun osoan zehar, hainbat adituk beren ekarpenak egingo dituzte gaiari buruzko eztabaidarako.

Nazioarteko Zuzenbideko eta Nazioarteko Harremanetako katedradunak eta Zuzenbideko adituak izango dira hizlarien artean, eta Lisboako Itunaren ondoren Europar Batasunak izango duen etorkizunaz eta indarrean sartu berri den itun horrek Euskadin izango dituen eraginez mintzatuko dira.

CONVOCATORIA

A las 9,00 horas en la sala Tomás Moro de la Cámara Vasca

Arantza Quiroga inaugura mañana en el Parlamento Vasco la jornada de Eurobask, *El tratado de Lisboa, una visión desde Euskadi*

Moderados por el Presidente de Eusko Ikaskuntza y la Directora para la Unión Europea del Gobierno Vasco, distintos especialistas se darán cita en este encuentro organizado por el Consejo Vasco del Movimiento Europeo y la Cámara Vasca

La Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, será mañana la encargada de inaugurar la jornada organizada conjuntamente con Eurobask (Consejo Vasco del Movimiento Europeo) y que lleva por título: El Tratado de Lisboa, una visión desde Euskadi.

La inauguración tendrá lugar a las 9,00 en las sala Tomás Moro de la Cámara Vasca, y acto seguido se dará paso a toda una jornada en la que diversos especialistas en la materia a tratar realizarán sus aportaciones al debate.

Entre los ponentes distintos catedráticos en Derecho Internacional, Relaciones internacionales y expertos en Derecho abordarán el futuro de la Unión Europea a raíz del Tratado de Lisboa y sus repercusiones para Euskadi una vez que recientemente ha entrado en vigor.

